

Donibanen Bizi

Vivre à Saint-Jean-de-Luz



*"Gu gina
alternatiba !"*

Zerrenda Pascal Lafitte

HAUTESKUNDE PROGRAMA

2026KO MARTXOAREN 15-22KO HERRIKO BOZAK



BILKURA PUBLIKOEN DATAK

Astelehena, otsailaren 23a, 19:00etan - Portuko erretegia

Asteazkena, martxoaren 4a, 19:00etan - Pavillon Bleu kirol zelaia (club house SJLO)

Asteazkena, martxoaren 11a, 19:00etan - Chibau Berria udal kampalekua Akotzen

Osteguna, martxoaren 12a, 19:00etan - Ixaka, haur ttikien gunea

ZURE AUZOAN

Auzoetan barna ibiliko den **harrera-puntu ibiltagarria** antolatuko da, zurekin elkartu, hitz egin eta zure galderei erantzuteko.



AURKIBIDEA

orrialde

03

**NORABIDE ADIERAZPENA,
PASCAL LAFITTE**

orrialde

06

**HARRIET BAITA,
HERRITAR KOFOINA**

orrialde

08

**GURE AUZOAK,
GURE INDARRA**

orrialde

11

**DONIBANEN BIZIREN
BILANA**

orrialde

04

**MARAÑON,
RAVELEK HATSA HARTZEN DU**

orrialde

07

**OSASUNA,
ONDASUN AMANKOMUNA**

orrialde

10

**DONIBANEN BIZI,
HORI ERE DA...**

orrialde

12

ZERRENDA



IKUSPEGIA, NORABIDEA, PROIEKTUAK

NORABIDE ADIERAZPENA - PASCAL LAFITTE

Herri Berri 2001ean sortu udal taldea da, alderdi politiko bati lotua ez dena, Donibandarrangandik hurbil. Azken lau agintaldi hauetan denen interesen defentsa izan dugu iparrorratz, bide-orri. Herriko boz horien kariatara, Donibaneko ezkerre gure proiektura batzen da, gure ibilbidea are gehiago idekiz eta aberastuz, Herri Berri **Donibanen Bizi : Vivre à Saint-Jean-de-Luz** zerrendarekin bat egiten du arrunt.

Herritarren arrangurak eta nahiak gure herriaren kudeaketaren muinean izan behar dira. Gure proiektua denena da; gure herrirako ikusmolde berri baten isla izan nahi du, haren ondareaz kontziente, arima eta historia baten eramaile, etorkizunari begira itzulia..

Badu hogeita hamar urte baino gehiago eskuin joerako gehiengo desberdinek ez dutela Donibandarren eguneroko arazoei erantzuten jakin, izan herri mailan, izan auzoetan. Orain arteko gehiengoek hainbat proposamen egin badituzte ere, horiek berant etorri dira, epe luzeko perspektibarik gabe, eta jendarte erronken heinera heldu gabe. Programa honetan aurkezten ditugun proiektuak ekonomikoki jasagarriak dira, plangintzatuak eta xifratuak.

- Etxebizitza mailan, Donibanen jende guziaz ezin da duinki bizi.
- Zirkulazioa eta aparkatze arazoei ez zaie aterabide egokirik atxeman, egungo klima erronkei begira problematika hauek tratatzea funtsezkoa delarik.
- Epe luzeko politika soziala ez da garatu, turismoari lotutakoa ekonomikoki plangintzatua delarik eta garatzeko errextasun guziaz ematen zaizkiolarik.
- Transizio ekologia politikak nekez egiten du aitzina eta egungo klima erronkei begira azpi-dimentsionatua da.

Donibanen Bizi, Donibandarrei proposatu bultzada berria

Gure proiektua, Donibanen Bizi diren eta bizi sozialean, ekonomikoan eta elkarte bizian inplikatuak diren guzietan zuzendua da.

Fatalitatea eta ezintasuna errefusatzen dutenei zuzendua da, bizitzeko herri goxoa amesten dutenei, belaunaldi eta sozial aniztasuna nahi dutenei, trantsizio ekologikoaren inguruan ardazu hautu politikoak bultzatu nahi dituztenei.

Gure proiektua herri honetako hizkuntzek eta kulturek oinarri amankomun bat osatzen dutela sinesten dutenei zuzendua da ; oinarri hori guztion artean partekatu eta bere egin nahi dutenei, hemen jaiotakoak zein kanpotik etorritakoak.

Donibanen Bizi, zerrenda bat, hiru printzipio

Idekia,

Borondate eta gaitasun guziaz biltzeko gisan.

Anitza,

Donibandarrei proposatu proiektua horien errealitate sozio-ekonomikoetatik eta tendentzia politiko desberdinetatik ahal bezain hurbil izateko gisan.

Abertzale, elkartasunezkoa, ekologikoa eta feminista joerakoak,

Gure engaiamenduaren oinarrian diren lau ezaugarriak dira, ondoko belaunaldiei herri humanoa, bizia, iraunkorra eta inklusiboa eskaintzeko gisan.


MARAÑON, RAVELEK HATSA HARTZEN DU

ESPAZIO PUBLIKOARI HATSA EMAN

Gaur egun espazio hori autoan zentratu enklabe minerala handia da. Berrantolatu behar da sekurizatuago eta erosoago bilaka dadin.

8.000 m²-ko arboladun parkea ezarriz, gure hiriari elbarritasun egoeran diren pertsoneri ere egokitu freskotasun

gunea eskainiko diogu, Errepiratik hiri barnera pasatzeko. **Mugikortasun plana** berpentsatuz, ikastetxeen aitzineko sarbideetan oinezkoei eta txirrindulariei lehentasuna emanez, gure haurren sekuritatea hobetuko dugu. Berde gune gehiago eta mundruna gutiago, klima nahasmenduari hobeki egokitzeko.



Ikastola

Maurice Ravel hezkuntza-gunea

Tren geltokia

APARKATZEA

240 tokiko bi estaiko aireko aparkalekua sortuko dugu, urrik, zur-metalezko egiturazkoa, fatxada begetalizatua eta eguzki panelak izanen dituena. Eboluagarri eta desmuntagarria, bertze beharrei ere erantzuten ahalko die. Parkearen sartzetan **jendea uzteko minutu-**

guneak ezarriz, eskoletarako eta geltokirako irisgarritasuna errentuko da. Aparkaleku honetan eta auzo osoan, aparkatzea **gune urdinera** pasatuko da, **urte osoan**, eta bertako egoiliarrentzat eta hiri barnean lan egiten dutenentzat bakarrik erabiliko da. Hiria bisitatzerako etortzen direnak hiri sartzeko lotura-aparkalekuetara bideratuko dira.



Hautetsi hitza

" Benetako aurrekontu parte-hartzaile bat martxan jartzeak herritarrei beren proiektuak gauzatzeko tresnak emango lizkieke, gure hiriaren sustraiei eta identitateari hurbilagoak direnak. "

Alain Duclerc

DONIBANDARRENTZAT ETA DONIBANDARREKIN PENTSATU PROIEKTUA

Gimnasioaren zabaltzeak elkartzeko gune baten sortzea ahalbidetuko luke: guraso-haurrentzako kafetegia, ludoteka, kirol gela... Parkea egiazko

bizi toki bilakatuko litzateke, **espazio publikoa berreskuratuz** helburu pedagogiko, kultural, osasunezko edo hazkurrizkoentzako. Donibandarrei erabakietan parte hartzeko parada emanen diegu, **tokiko demokrazia parte hartzailea** akuilatzeke.



Hautetsi hitza

" Foch plazaren mineralizazio garestiari, etorkizunerako hautu argia kontrajartzen diogu: hiri-parkea "

Marie-Hélène Dupuy Althabegoity

HARRIET BAITA, HERRITAR KOFOINA



Ondare amankomun bat zaindu eta berrinbertitzea, errealitatean errotutako zerbitzu publiko baten aldeko hautua egitea da.

Kofoina, hurbileko udal proiektu bat da, Harriet Baita etxe ondaretsuaren eta eguneko harrera-gunearen birgaitzean oinarritua. Sukalde zentral komunal batek osatuko du gune publiko hau.

Leku ireki eta bateratzaile gisa pentsatua, Kofoina, **lurraldeko elkarteek dinamizatu eta kudeatzen dute**, lankidetzaz, autonomia eta interes orokorraren ildoan. Auzoko ekipamenduak - Tanka, ospitalea, CMPP-a, zahar-etxea - elkarri lotzen ditu, espazio amankomunen inguruan; publikoak eta erabilerak gurutzatzen ditu, eta lotura soziala indartzen du.

KULTURA

Kofoinak, **kultura herrikoi, bizi eta emantzipatzailea** defendatzen ditu, ondasun amankomun gisa eta benetako zerbitzu publiko gisa pentsatua da. Ondare bizia, sorkuntza garaikideak eta euskara erdigunean kokatzen dira bertan, kultura guztiei irekia den ikuspegi batean. Memoria kolektiboetan errotua eta adierazpen garaikideei adi, prezio egokituei esker, **kultura partekatu eta bateratzaile baterako sarbide berdintasuna bermatzen du**, eta espazio publikoaren berjabetzea sustatzen du.

SOZIAL ETA ELKARTE BIZIA

Kofoinak, elkarte-bizitza lotura sozialaren eta tokiko demokraziaren motor bilakatuko du. Elkarteen arteko lankidetzaz, gaitasunen elkartrukea eta proiektu kolektiboak sustatzeko, espazio partekatuak eskainiko ditu. Udalak haren jarduerak sustengatuko, babestuko eta finantzatuko ditu, elkarteen autonomiaren errespetuan. **Leku ireki, inklusibo eta belaunaldien artekoa** izanik, Kofoinak **bakartasunaren aurka** jardunen du, bizi-ibilbideak lagunduko ditu, eta herriaren bihotzean elkartasuna eta bizikidetzaz indartuko ditu.

HERRIKO SUKALDE ZENTRALA ETA HAREN JANTOKIA

Lurralde-proiektu oso baten baitan, **sukalde zentrala**, Kofoina herritarraren lehen eragiketa-ardatza da. Kalitatezko elikadura bermatzen du, zirkuitu laburretan, hurbileko laborantza-ekoizpenean eta udal ontzi batek bermatutako arrantzan oinarritua. Eskolako haurren eta adinekoen otorduak prestatzen ditu, enplegua sortzen du — bereziki gizarteratze-enplegua — eta **benetako udal jantoki bat** eskaintzen du, guztiontzat eskuragarri.



Hautetsi hitza

" Kultura bizi, herrikoi eta irekia bermatzea, edozein elitismotik urrun, lehenik eta behin elkarte-sarean oinarritzea da; hori da, hain zuzen ere, Donibanen Bizi : Vivre à Saint Jean de Luz-en lehentasuna. Gure elkarteak, gure kultura partekatua! "

Peio Etcheverry-Ainchart

OSASUNA, ONDASUN AMANKOMUNA

Udal jarduerari arnasa emateko, **hiria osasun publikoaren politketan eragile legitimoa da**. Donibanen Bizik, tokiko osasun planaren bidez, lehentasunezko zat jotzen dituen gaietan lan egin eta ekitea proposatzen du: **osasunaren prebentzioa** zentzu zabalean, ingurumenari lotutakoa barne; osasun mentala, bereziki gazteena; denentzat arreta medikorako sarbidea; osasunaren sustapena; eta hiriko egiturak egokitzea, bai bizi-itxaropenaren luzatzeari, bai desgaitasunari erantzuteko.

GURE INGURUNEA ZAINDU

A63 eta RD810etik (lehen RN10) egunero gure hiria zeharkatzen duten hamarnaka milaka kamioi eta autoek ondorio zuzenak dituzte herritar guztion osasunean eta lasaitasunean. Arrabots eta aire-kutsadura murrizteko, Ipar eta Hego irteeren arteko autobide-zatiak hiriaren saihesteko hiri-bide bihurtu behar du, dohainik, **Xantakon trukagune bat sortuz**.

Espazio publikoaren berdegintze

eta desartifizializazio plan orokor eta larrialdizkoa abian jarriko da.

Gure karriketan berdegune gehiago, eta euri-urak erortzen diren tokian bertan lurreen xurgatzea: epe luzerako benetako ikuspegiarekin jardutea.

Gure ozeanoa gure begipean hiltzen ari da, jada arrantzan eta bainuan eragina izanez, eta tokiko ekonomiaren funtsezko sektoreak mehatxatuz.

Hori guztia aurreikusi ez duen tokiko politika arduragabe baten ondorioa da, hazkunde demografikoari eta turismoaren gorakadari aurrea hartzen jakin ez duena.

Gure edateko ura, Nibelatik ponpatua, presio antropikoak pairatzen ari da ere; Nibelaren ibai-ingurune osoan adostutako eta partekatutako kudeaketa batek bakarrik babestu dezake.

Ez da berandu ekiteko, banakotik erakundeetara inoko eskalan.

EGUNEROKO BAZTERKETEI AITZINA HARTZEA

Bortizkeriak antzizipatzeko eta Doniban-darrak hobeki laguntzeko, **hurbiltasunezko solaskideen** sarea osatuko da. Presentzia auzo guztietan segurtatuz, solaskide identifikatu horiek (hurbileko polizia, bitartekariak, herriko langileak edo elkarte eragileak) terrena eta pertsonak ezagutzen dituzte. Jendeen entzutea errexten dute, zerbitzu egokietara bideratzen dituzte, pertsona zaurgarriak babesten dituzte eta arazoak antzizipatzen dituzte, izan sekuritatearen aldetik, izan elbarritasun egoeran direnak mugitzen lagunduz, menpekotasunei edo bazterte numerikoari aitzina hartuz. **Jende presentzia, hurbilekoa eta lasaigarria, egunerokoa.**



Hautetsi hitza

" Etorkizuneko ur-araztegia ez da uraren kalitateari lotutako erronken mailakoa izango: ez da tratamendu aurreraturik aurreikusten kutsatzaile kimiko eta bakteriologikoentzat, ezta mikrokutsatzaileentzat ere. Legeak behartzerari iritsi arte itxaron beharko dugu, gure osasunaren eta ingurumenaren kaltetan. "

Hugo-Luc Maillos

GURE AUZOAK, GURE INDARRA

ITSASBAZTERREKO AUZOAK

AKOTZE, ERROMARDI, BERAUN, ARTXILOA, ETCHEBIAGUE

Urte osoan zehar bizitzeko

Sasoialdiaren kontra egiteko eta urte osoan zeharreko auzo bizia bultzatzeko, Lafitenia herriko lokalaren berritzea abiatuko dugu. **Erabilera anitzeko etxea** sortuko dugu, Gaztetxeak eta Akotzeko komiteak ko-animaturik, jarduera, topaketa eta ekitaldi erregularrak antolatzeke, herritar guzien zerbitzuko.

MUINETAKO AUZOAK

KARSINENA, ALTURAN, CHANTACO, BALCOIN, SEDERIA, SOPITENA, BALDARETA

Hiri zabaltzea gelditu dezagun!

Hiri zabaltzea gelditu eta natur eta laborantza espazioak luzaroan babesteko, egungo ekipamenduak hobeki zaindu eta iraunarazi behar ditugu. Horretarako, lehentasuna da **irigarritasuna eta joan-etorriak egunerokoan hobetzea**, bideak konpontzea eta bide-gurutzeak sekurizatzea.

AUZO HISTORIKOA

DUKONTENIA, HIRI-ZAHARRA, MERKATUA, ITSAS BAZTERRA

Mugikortasun arinei itzuli auzoa

Mugikortasun arinak egiazki garatzeko, oinezkoentzako bidea luzatu behar da alde batetik, eta pirripita bide ikusgarri eta seguruak sortu behar dira bestetik. Bi antolaketa lan hauek elkarrekin doaz. Hiri barnerako sarbideak eta aparka guneak hiri barnean bizi eta lan egiten dutenentzat bakarrik atxikiko dira. Hiri barneko plaza berdeak balorizatuko eta begetalizatuko dira, bizilagunekin elkarlanean. Hirigune historikoko **ondare eraikiaren zaintzarako** udalaren sostenguari esker, erdigunea **museotu gabe** gara dadin ahalbidetu behar da.



Hautetsi hitza

" Beroketa klimatikoa kontuan hartzea ez da ez Foch hormigoiz betetzea, ezta Erromardin ozeanoaren aurkako babes-horma bat egitea ere. "

Pierre-Laurent Vanderplancke

BIZI AUZO INDIBIDUALAK

URKIJÓ, HABAS, BAILLENIA, SAN JOSEPE, AIZE ERROTA, SANSU, SANTA BARBARA, MOLERESSENIA, AINTZIRA, URTABURU, ARGÍ EDER

Karrika lasaiagoak behar ditugu

Zirkulazioa arintzeko, beharrezkoa da bideak berpentsatzea, abiadura apaldu, joan-etorriak sekurizatu eta **bizilagunentzako aparkatze tokiak** sortzeko. Auto, oinezko eta txirrindularien artean espazio publikoaren partekatzea hobeki kudeatzeak lagunduko du auzoak egunerokoan lasaiagoak, seguruagoak eta atseginoagoak izaten.

BIZI AUZO KOLEKTIBOAK

FARGEOT, ERREPIRA, URDAZURI, IXAKA

Espazio sozio-kultural amankomunak gara ditzagun

Lotura soziala sendotzeko, beharrezkoa da **espazio sozio-kultural partekatuen garapena** sustatzea eta laguntzea: eskola-sustengurako lokala, desplazatu mediateka, eta publiko guzietan zuzendu jarduerak. Eskaintza hauek herritarrekin ko-eraikitzeak dira, denei ideki desmarxa parte-hartzaile eta inklusiboen bidez.

JARDUERA EKONOMIKOKO AUZOAK

JALDAI, LAIATZ

Enpresen instalatzea bultzatu dezagun, enpleguak sortzeko

Azpi-okupatuak diren espazioen balorizatzeak eta aparkatzeen mutualizazioak enpresa berriak etorritzeko eta hori direnak garatzeko lokal berrien sortzea ahalbidetuko dute. **Artisau eta industria jarduerak egonkortzea eta laguntzea funtsezkoa da** lurraldearen etorkizunerako. Horrez gain, deslokalizagarria ez den tokiko enpleguaren inguruko ekonomia zirkularra garatzea plantan jartzekoa da.

GURE IKUSMOLDEA



APARKATZEA

Aparkatze politika herri oso mailan pentsatu behar da. **Gune urdina gure auzoetara zabaltzeko eta egokitu behar da.** Aterabide berritzaileak (**egoiliarrentzako** aparkatzeari egokitu elkartasunezko prezio politika, adibidez) abiatuko ditugu.

ETXEBIZITZA

Ikasle kopuru beherakada izigarria da: - %16 hamar urtez, kopuruaren heren bat galdu da azken 30 urte hauetan. Lehentasuna, bikote gazteei prezio onargarrian Donibanen bizitzeko aukera ematea da. **Eraikitzen den etxe bakoitza lehen bizitegi gisa erabili behar da.** Echaniz legeak hori ahalbidetzen du, lehenbailehen aplikatuko dugu. Legeak garatu behar du metro koadroaren prezioa arautzea ahalbidetzeko.

TURISMO JASANGARRIA

Hiria saturaziora iritsi da, urte osoan jende gehiago eta gehiago erakartzea helburu duen udal politikak eragindako gainfrekuentazioaren ondorioz. Presio neurrigabe horrek zuzenean eragiten du gure egunerokoan, gure azpiegiturak horretarako neurtuak ez direlako. Komunikazio sustatzailea eta Patrouille de France bezalako mega-ekitaldiak etengo ditugu, **lurraldeko biztanleei zuzendutako animazioak sustatzeko.**

GOI-MAILAKO IKASKETAK

Ezinbestekoa da hiriaren dinamismoaren benetako motorra izango den **goi-mailako irakaskuntzako polo bat egituratzea.** Aintzineko tenis estalien eraikinetan kokatuko da. Ikasleek eta sasoiko langileek pairatzen duten bizitegi-krisiari aurre egiteko, **aterpetze eskuragarri eta egokituak** garatuko ditugu Mutilen Eskola zaharren kokalekuan.

DONIBANEN BIZI, HORI ERE DA...

EKOLOGIA

Aztarna ekologikoaren apaltze iraunkorra engaiamendu politiko argi eta koherenteetatik pasatzen da. **Herriko bastimenduen berritzea** lehentasunezkoa da, ura eta energia aurrezte ahalbidetuko baitu, herriko xahutzeak tikituz.

IRISGARRITASUNA

Gure herriak elkarteekin elkarlanean **landu irisgarritasun xarta** bozkatu eta aplikatu beharko du, elbarritasun mota desberdinak kontuan hartuz, eta espazio publikorako, bastimenduetarako, informaziorako eta numerikorako lege finkatu betebeharrak baino haratago joanez.

MIGRANTEAK

Migranteek mugan pairatzen duten drama humanitarioaren aitzinean, ezin ditugu begiak hetsi. Migratzaileen harrera eta laguntzan aritzen diren **elkarteak sostengatzeko konpromisoa hartzen dugu**.

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA ETA EUROESKUALDEA

Elkargoa eta Euroeskualdea ezinbertzeko eskalak dira lurralde mailako proiektu koherenteak eraikitzeko. Garrantzi handiko proiektuentzat, jende eta teknika **baliabideen mutualizazioa** bultzatu eta orokortu behar da. Hala nola, Zokoako Gotorlekuaren itsas ondarearen balorizazioa, Urdazuriko edo itsasbazerreko uren kudeaketa, lotura-aparkalekuen erronka nagusiak tratatzeko, antolaketa politika amankomuna eta erabaki politiko koordinatuak behar dira.



Hautetsi hitza

" Emazteen aurkako

indarkeriaren kontrako politika

abian jartzea lortu dugu, diru-

baliabideak falta zaigu oraindik. "

Yvette Debarbieux



DONIBANEN BIZIK SUSTENGATZEN DU

- **Euskararen biziberritzea et normalizazioa** bizitza publikoaren maila guztietan bermatzeko, baliabideak indartu behar dira.
- **Estatutu berezi** eta paritariora duen lurralde-kolektibitatea, eta aitorpen instituzional horretan parte hartzen duten egiturak (Laborantza Erakunde Publikoa, Euskal Hirigune Elkargoan goi-mailako unibertsitate poloen garapena, eta abar).
- **Euskararen ko-ofizialtasuna.**
- **Euskal Herriko gatazkaren memoria historikoaren lanketa.**



Hautetsi hitza

" Premiazkoa da ingurunea

eta herritarrak hiriaren

turismo-estrategiaren

erdigunean kokatzea. "

Lamia Horchani



**Diputatu
hitza**

" Donibanen Bizi-k Donibandarren kezka eta arazoak helaraztea lehentasuntzat du. Gai zehatzetan elkarlanean ari gara jadanik, bereziki poliklinikako larrialdi-zerbitzuen defentsan eta bizitoki nagusien inguruko iruzurraren aurkako borrokan. "

Peio Dufau - 6. Hautesbarrutiko diputatua

DONIBANEN BIZIREN BILANA

GEHIENGOAK, BERANT, GURE NEURRIAK BEREKANATZEN DITU

UDAL FINANTZAK

Urte luzez, udal gehiengoak bigarren etxebizitzaren gaineko gainzerga ezartzeari uko egin dio, eta horrela milioika euro galdu dira udal finantzentzat. 20 urte baino gehiagotik, eta Asanbladarako, etxebizitza-krisiari irtenbideak proposatzen ditugu, udal gehiengoak ikuspegi gabe, kasu kasu kudeatzen duen bitartean.

MUGIKORTASUNA

2014an, Herri Berrik Xantakotik autobiderako sarbide bat sortzea eskatu zuen, herria zeharkatzen duen fluxua desbideratzeko. Gaur arte, autobideko trukagunea finantza-azterketetan trabatua dago. Duela hogeita bat urte, Irigoyen jauna, udal gehiengoko udal kontseilari gisa, sarbide horren sortzearen kontra zen. Horrek, aski ongi azaltzen du atzerapena. 2003tik eta 2014ko gure hauteskunde-programan,

hiri-sarreretan aparkaleku trukagarriak proposatu ditugu. Hamar urte behar izan dira azkenean martxan jartzeko.

ARGITERIA PUBLIKOAREN ITZALTZEA

2021eko konfinamenduan, Herri Berrik argiteria publikoaren itzaltze selektiboaren esperimentazioa proposatu zuen. Udal gehiengoak berehala hartu zuen inspirazioa, ezohikoa dena, baina herritarrekin kontzertaziorik eta informaziorik gabe. Argiak itzalirik aitzina doan politika !

LARRIALDIK

2024an, Herri Berrik alarma jo zuen, udal gehiengo geldo eta erresignatu baten aurrean, Larrialdiak ixteko puntuan zirelarik. 2025ean, ekiteko garaia etorri zen: udal kontseiluan mozio bat aurkeztu genuen (udal gehiengoak baztertuta), ondoren sinadura-bilketa eta mobilizazio herritarrak abiatu genituen. Presio politiko eta herritarrari esker, Peio Dufau diputatuaren eta lurraldeko hautetsi guztion esku-hartzearekin, Larrialdiak salbatu dira.

UDAL GEHIENGOA BETI BIDE OKERREAN DABIL, NORABIDEA ALDA DEZAGUN !

BIZIKLETA-BIDEAK

Bizikleta-ibilbide zuzen, jarraitu eta seguruak ezinbestekoak dira, bai ardatz nagusietan, bai bigarren mailakoetan. Hamarkada batez, auzoak eta herriko gunek giltzarriak (eskolak, zerbitzuak, geltokia...) lotzen dituen bizikleta-sare oso bat proposatu dugu. Sare hori denentzat da, ez turismoarentzat bakarrik, hiri barruko ibilaldi laburretan autoaren menpekotasuna apaltzeko. Udal gehiengoak, berriz, motel eta zatikaka hedatzen du.

SURF PARKEA

2020an, Herri Berrik abiatu eta eraman zuen **mobilizazio herritarrari esker** (70.000 sinadura bildu zituen eskaerari esker), Surfpark proiektua gelditzea lortu zen. Udal gehiengoak ahalbidetutako proiektu hori, lur komunalean gainean eta herritarren aitzinean inolako gardentasunik gabe eginga, aberrazio ekologikoa izan da eta hala izaten segituko du. Ozeanotik 1,5 kilometrora, igerileku erraldoi bat : zentzugabekeria hutsa !

ESPEKULAZIOA

Udal gehiengoak merkatuaren legea pairatzen du ; alderantziz, guk, espekulazio mota ororen aurrean (etxebizitza, lur laboraria...) **alarma jotzen dugu eta legea aldatzeko proposamenak** eramaten ditugu. Udal langile bat bereziki arduratuko da bizitoki nagusien eta alokairu turistikoaren iruzurraren aurkako borrokan.



1 CM

Pascal Lafitte

68 ans, directeur d'école retraité, marié, père de deux enfants, Erromardi

Conseiller municipal sur les quatre dernières mandatures; conseiller communautaire (2014-2020). Petit-fils et fils de marins pêcheurs, mon engagement au service des Luzien.nes a été constant depuis plus de cinquante ans. Je m'engage avec mon équipe pour que notre ville redevienne vivante, solidaire, accessible à tous, ouverte vers l'avenir pour les générations à venir.

Elkargoko Kontseilaria (2014-2020). Donibane Lohizunen sortua, arrantzale seme eta arrasamea, badu 50 urte baino gehiago donibandarren alde engaiatua naizela. Donibanen Bizi taldearekin engaiatzen naiz gure Donibane Lohizune biziberritzeko eta elkartasunezko herria berriz bilaka dadin, denei idekia, eta ondoko belaunaldiari etorkizun itxaropentsuagoa uzteko asmoarekin.



2

Mikaela Guiresse Duperou

42 ans, architecte, Centre

Je m'engage comme abertzale pour des politiques publiques ancrées dans un héritage culturel et linguistique vivant, en mouvement, au service d'un territoire en transformation, que je souhaite contribuer à transmettre, debout et affirmé.

Abertzale gisa engaiatzen naiz, kultura eta hizkuntza ondare bizi eta mugimenduan errotua den politika publikoen alde, eraldaketan den lurralde baten zerbitzura, lurralde hau xutik eta sendo transmititzen laguntzeko.



3 CM

Hugo-Luc Maillos

36 ans, géologue, Sainte-Barbe

Conseiller municipal depuis 2020. Luzien viscéralement attaché à notre ville, c'est un soir d'hiver en rentrant du lycée que je n'ai plus supporté de traverser des quartiers fantômes avec de trop rares lumières aux fenêtres. De là est né mon engagement et je continuerai à militer pour voir revivre Saint-Jean-de-Luz.

Gau euskolan, euskara ikasten hasi nintzen eta laister egunerokoan erabiltzea espero dut. Gure lurraldearentzat etorkizunari begira, aberastasun eta baliabidea da.



4

Catherine Bertrand

59 ans, retraitée du notariat, Etxebiaque

Je m'engage pour que chaque Luzien se sente respecté, pour un accès plus fluide à la ville pour tous les âges et pour qu'il n'y ait aucun citoyen laissé pour compte.



5 CM

Pierre-Laurent Vanderplancke

60 ans, professeur agrégé, Lac

Luzien depuis 26 ans et président d'une association européenne pour l'internationalisation des enseignements, je milite pour que la cité soit plus dynamique, intergénérationnelle et démocratique.



6 CM

Marie-Hélène Dupuy Althabegoity

55 ans, agricultrice, électricienne, professeure agrégée, Centre

Conseillère municipale depuis 2020. Santé, climat, local : je m'engage pour une ruche et une cuisine centrale à Saint-Jean-de-Luz.



7

Pierre Koch

44 ans, ingénieur, Karsinenea

Né à Saint-Jean-de-Luz et ingénieur dans le bâtiment, je m'engage pour une transition écologique, socialement juste. Devenu maître-composteur, j'ai cofondé l'association Collecte et Compost.



8

Stéphanie Grimbert

42 ans, professeure d'université, Centre

Ancienne sportive de haut niveau, travaillant à Donostia et attentive à l'avenir de nos jeunes, je m'engage pour leur offrir des opportunités locales.



9

Marc Drosson

69 ans, médecin généraliste retraité, Saint Joseph

Ayant exercé 36 ans à Saint-Jean-de-Luz, je m'engage pour défendre les valeurs progressistes qui sont attaquées de tous côtés.



10

Maitena Dufau Mondela

44 ans, erizaina, Laiatz

Denentzat kalitatezko eta hurbileko osasun-zerbitzu publikoa mantentzeko inplikaturik naiz. Donibandarra, Begiraleak, Ereintabil eta Akoztarrak bezalako elkarteetako kidea naizenez, gure kultur balioen transmisioarekin jarraitu nahi dut eta nire hiriarekiko konpromisoa hartu.



11

Romuald Saint Macary

43 ans, enseignant, Saint Joseph

Enseignant, bénévole engagé dans le sport et ayant grandi à Saint-Jean-de-Luz, je suis attaché à ce que les familles puissent continuer à se loger dans notre ville.



12

Maider Beheran

46 ans, erizaina, Lakuko

Abertzalea, elkarte munduan betidanik errotua. Urte osoan bizi den lurralde batean sinesten dut, Euskara, kultura, ekologia eta justizia soziala oinarritzat hartuz.



13

Sébastien Emasabal

49 ans, prestataire audiovisuel, Baillénia

Luzien, j'ai grandi à Ichaca. Des priorités : épanouissement de la jeunesse, ouverture culturelle, plus d'attention portée aux plus fragiles. Bâtir un avenir apaisé, dépollué, toujours plus agréable et intéressant à vivre.



14

Elorri Igos

36 ans, ingénieure environnement, Fargeot

Ayant grandi à Saint-Jean-de-Luz, je souhaite m'engager pour rendre ma ville plus durable et accessible.



15

Xavier Lacombe

57 ans, pédicure-podologue, Lac

Luzien depuis toujours, impliqué dans plusieurs associations et attaché à l'avenir de nos seniors et nos jeunes dans notre belle ville.

LA LISTE / ZERRENDIA



16

Ana Holbrook

30 ans, erakaslea Begiraleak elkarteak kidea, Haize Errota

Gazteak Donibanen bizitzeko aukera izatea eta euskaraz hazteko atxikimendua ezinbestekoak dira niretzat.



17

Peio Etchelecu

46 ans, Donibane-ko ikastolako zuzendaria, Urkijo

Luzean batasune-ko arduraduna eta Begiraleak elkarteak kide oiha. Hainbeste urtez elkartetan Donibane-ko bizian inplikatu ondoren. Nere herriarekiko dudaren atxikimendua partekatu nahi dut beste maila batean.



18

Nahia Zubeldia

43 ans, itzultzailea eta musikaria, Lakuko

Sortzez ziburutarra naiz, Donibane-ko ikastolako burua eta Begiraleak eta Moï Moï elkarteak kidea. Hiria euskaraz bizitzea eta urte osoan biztanleak lehentasun izatea funtsezkoak iduri zaizkit.



19

Andoni Maury

28 ans, employé au cinéma, Centre

Luzien depuis toujours, je m'engage pour une ville culturellement dynamique et tournée vers sa jeunesse, afin que les jeunes puissent y vivre, y rester et s'y projeter.



20

Maitena Massigoge

43 ans, psychopédagogue, Centre

Née à Saint-Jean-de-Luz et travaillant en centre médico-psychopédagogique, je suis attachée à mes racines et je souhaite participer à la vie de notre ville.



21

Léo Zozaya

36 ans, serveur, Fargeot

Né à Saint-Jean-de-Luz, je suis impliqué dans ses associations, à travers l'épicerie coopérative Olakoop. Je m'engage pour que notre ville reste habitable pour tous.



22 CM

Lamia Horchani

61 ans, chargée d'affaires travaux montages, Urquijo

Ancienne élue Herri Berri. Ancienne présidente d'Ereintabil, je souhaite une ville vivante toute l'année et intergénérationnelle. Ensemble et dans le respect des différences nous pouvons agir et avancer pour le bien de tous.



23

Manu Irigoyen

66 ans, agent de maîtrise retraité, Errepira

Sensible à toutes formes d'exclusion, je suis actif dans une association soutenant les personnes en grande précarité. J'ai l'espoir que les quartiers éloignés du centre soient enfin au cœur des décisions de la ville.



24

Idurki Soubelet Fagoaga

37 ans, gizarte psikologoa irakasle, ikertzailea, Zentroa

Herritarrei bideraturiko zerbitzu eta politika publikoak ezar ditagun, Donibane euskaldundu eta herria biziarazi. Egun, Donibane-ko Ikastolan eta Nazimetroan parte hartzen dut.



25

Patxi Phenglamphanh

19 ans, étudiant en histoire, Urquijo

Né et ayant grandi à Saint-Jean-de-Luz, j'ai surtout à cœur la question de l'accessibilité au logement, en particulier pour les jeunes.



26

Carmen Berasategui

71 ans, kinésithérapeute retraitée et formatrice, Urdazuri

Je m'engage pour revoir l'évolution inquiétante de notre ville dans tous les domaines, avec un esprit de lucidité, d'égalité, de respect et une vision à long terme.



27

Marc André Cheynel

61 ans, prestataire de services, Etxebiaque

Je m'engage pour un accès à la culture pour tous, toutes générations confondues, et pour un habitat qui privilégie la mixité sociale.



28

Béatrice Elissalde

56 ans, erantzale, Baillénia

Haize Arima eta Pleine Mer elkarteak (arrantza artisana aldea) kidea. Gure haurrendako etxe duin bat, geroarendako arrantza portu bat, Donibane Bizi eta lan egin.



29 CM

Alain Duclercq

65 ans, professeur agrégé retraité, Ixaka

Ancien élu Herri Berri. Engagé pour une ville vivante, qui reste fidèle à ses racines et qui cherche à préserver une mixité sociale et générationnelle.



30

Kistiñe Idiarte-garay

67 ans, erretretaduna, Erromardi

Ene herrian bizi nahi dut bertako belaunaldi guziekin ahanzi gabe gure nortasuna eta gure hizkuntza. Kide aktiboa Larrunkoop janari saltegiaren eta Begiraleak elkartearen.



31 CM

Peio Etcheverry-Ainchart

52 ans, irakasle, Karsinenea

Formakuntza historialari, editore egon ondok gaur egun Ziburuko euskarazko kolegioan irakasle dokumentalista naiz. Herri Berriko hautetsi izana naiz, etxebizitza arloan berezituia.



32 CM

Yvette Debarbieux

78 ans, retraitée fonction hospitalière, Saint Joseph

Conseillère municipale depuis 2003, mon engagement au sein de la commune et en tant qu'élue porte sur la défense des services publics, les inégalités femmes / hommes, les discriminations et les violences faites aux femmes.



33

Baptiste d'Aleman Aguirre

42 ans, chanteur, Acotz

Luzien depuis 2012, je m'engage contre la spéculation immobilière et pour la protection du littoral à Lafitenia, après des pratiques violentes et abusives subies comme locataire.